

Tokiko produktuak eta zerbitzuak kontsumitzeak gure osasuna hobetzen laguntzeaz gain, gure inguruko gizarte-harremanak eta ekonomia garatzen eta mantentzen laguntzen du. Era berean, klima-aldaketaren aurkako borrokan lagundu eta ekoizlearentzat eta kontsumitzen duenarentzat prezio bidezkoagoak lortzea errazten du.



Zure erosketasaskiak  
gizartea alda dezake

# TOKIKO KONTSUMOIA



Laguntzailea:



Gaur egun, elikagai ultraprozesatuek eta milaka kilometrotara ekoizitakoek gertuko eta sasoko elikagaiak ordezkatu dituzte, baina gure **osasunaren** kaltetan, produktuen kalitatea ez baita berdina.



Bestalde, tokiko ekoizleek kontsumitzaileak ezagutzen dituzte, eta haiekin duten konpromisoa eta erantzukizuna multinazionalekin dutena baino askoz handiagoa da. Gainera, tokiko produktuak kontsumitzeak zure inguruko pertsonakiko **gizarte-harremanetan** eta **inguruko ekonomiari eusten** laguntzen du.



Gainera, sasoko produktuen kontsumoak produktuen inportazioa murrizten du, eta hori urrats garrantzitsua da **klima-aldaketaren aurkako borrokan**.



Horri gehitu behar zaio tokiko produktuak kontsumitzeak inguruko ekonomiari laguntzen diola: gertuko produktuetan gastatutako euro batek halako bi sortzen du tokiko ekonomiarentzat. Gainera, gertuko ekoizleek beren lanaren etekinak lortzen badituzte, **aberastasuna sortzen eta beren komunitatean lanpostuak sortzen** jarraituko dute.



Mundu jasangarriagoa lortzeko erantzukizuna kontsumitzaileena bakarrik ez bada ere, ekoizpen-eredu bidezkoak eta arduratsuak bultzatzeko lanean inplikatzeko alde handia izan daiteke garapen jasangarri globalaren

alde. Horregatik, garrantzitsua da tokiko zerbitzuak mantentzen laguntzea horietan kontsumituz eta inguruko ekintzaile txikien ekimenak babestea. Azken batean, arduraz kontsumitzea eta, **erosten dugun bakoitzean, zein gizarte motatan bizi nahi dugun erabakitzen dugula** jabetzea.



Kontsumo arduratsuaren ohitura bultzatzeko, Etxauribarreko eta Oltza Zendeako udalek eremu horretako **ekoizleen eta zerbitzuen erregistroa** egin dute. Erregistro hori beren webguneetan kontsulta daiteke, eta etengabe eguneratuko da. Gure bailaretan bizi bazara eta ekoizlea bazara edo zerbitzuren bat eskaintzen baduzu, nahi duzunean erregistra zaitezke.

## Klima-aldaketaren kontrako borroka

Klima-aldaketaren aurkako borrokan, Etxauri, Etxarri, Belaskoain, Bidaurreta eta Oltza Zendeako udalak Klimaren eta Energiaren aldeko Alkatetzen Europako Itunari atxiki zitzaizkion joan den uztailean, klima-aldaketa arintzeko eta haren ondorioei aurre egiteko hartu behar dituzten neurriak zehazteko plan bat egiteko asmoz. Klima Aldaketak dakartzan arriskuak, besteak beste, uda honetan gure inguruan jasan ditugun suteak dira. Sute-arriskutik babesteko, funtsezkoa izango da mendian abeltzaintza estentsiboa eta herri-inguruneetatik hurbil dauden lurren nekazaritza-erabilera sustatzea. Era berean, abeltzaintza- eta nekazaritza-erabilera egon dadin, lanbide horretan jardun nahi duten eta jardun ahal izango duten pertsonak behar ditugu. Eta lanbide horretan jardun ahal izateko, bertako herritarrak haien produktuak kontsumitzea behar dute.